

## A.11. IRUÑA DE OCA / IRUÑA OKA

### A.11.1. Iruña / Veleia

VII. esku hartze kanpaina  
Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte  
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

*The seventh season of archaeological interventions focused again on sector 22 of Iruña-Veleia, this time in the outer passageway located to the west of the macellum building. The results revealed that the surface area covered by the market initially extended to this limit, and that later it was enlarged to the west with a series of buildings connected to the existing complex from the north, thanks to a monumental access gate, complete with arcades.*

*The consolidation and restoration of the remains discovered during previous seasons continued, along with their preparation for display in a museum.*

22. sektorera eta bereziki macellum edo azokaren eraikinaren mendebaldeko kampo korridore batera mugatzen zen aztarnategi honetan AFArekin itundutako esku hartzea. Lan horiek 2017ko uztailean eta abuztuan eraman genituen burura.

Esku hartze arkeologiko honen helburua zen orain arte induskatu ez den 22. sektoreko alde honekako estratigrafiaren bilakaera ulertzea, izan ere, etorkizunean sendotu eta halako balioa eman baino lehen, galdera sorta bat planteatzzen zen.

2017ko uztailaren 24an hasi ginen lanean, irailaren erdialdera arte luzatu ziren. Gutxi gorabehera 150 m<sup>2</sup>-ko azalera induskatu genuen. Jarraian esku hartze honetan dokumentatutako sekuentzia historikoa aztertuko dugu; ikusiko dugun bezala, galdera batzuei erantzuteko balio izan du, baina aldi berean beste batzuk planteatu ditu, batez ere azoka mendebaldetik inguratzen duten eraikinei buruzkoak.

#### **Lehenengo fasea**

Ekinaldi honetako jardueran iritsi ahal izan diren ondorioetako bat da macellum edo azokaren lehen eraikina ez zela mendebalderantz alde horretako itxiturako hormartetik harago luzatzen, induskatutako azaleran ez baitugu horrelakorik iradoki zezakeen ezertzko ere dokumentatu. Izan ere, aurreko urteetan bideratutako kanpainei esker planteatu zen bezalaxe. aurten dokumentatutako egitura guzietako horma zaharrena macellum-aren lehenengo eraikina mendebaldetik ixten zuena dela egiaztago ahal izan dugu, eta horma horri atxiki zitzazkiola beste egitura guztiak.

Logikoa denez, hain zuzen ere horrexegatik ez genuen lehenengo fase honetan kokatu zitekeen begarririk egiaztago, garai hartan oraindik ez baitzuten eraikin multzo horren alde hori erabat egokituko, eta ondorioz, aldi batez bederen, kota alde garrantzitsu bat izango baitzen ordurako berdininduta egongo zen merkatuaren barruko aldearen eta eraikinaren kankoko aldearen artean, bigarren horretan eraikina altzatzeko proiektu hori gauzatu aurreko topografiak bere horretan jarraituko zuelarik. Nolanahi ere, desibel garrantzitsua egongo zen, bertako begarri ongi zehaztuetan (obra honetako zimentarrirako erretenak

### A.11.1. Iruña / Veleia

VII Campaña de intervenciones  
Dirección: Miguel Loza Uriarte  
Financiación: Diputación Foral de Álava

La intervención concertada por la DFA en este yacimiento se centraba en el sector 22, y más concretamente en un pasillo exterior situado al oeste del edificio del macellum, que se llevó a cabo durante los meses de julio y agosto de 2017.

El objetivo de esta nueva actuación arqueológica era, comprender la evolución estratigráfica de esta zona del sector 22, hasta ahora no excavada, y en la que había una serie de preguntas a plantear antes de acometer su futura consolidación y puesta en valor.

Los trabajos de campo comenzaron el 24 de julio de 2017 y se prolongaron hasta mediados de septiembre. La superficie excavada fue de unos 150 m<sup>2</sup>. A continuación vamos a revisar la secuencia histórica documentada en esta intervención que, como se podrá ver, ha servido para responder a algunas cuestiones pero, al mismo tiempo, ha planteado nuevos interrogantes, sobre todo, sobre las edificaciones que rodean el mercado por su lateral de oeste.

#### **Primer fase**

Una de las conclusiones a la que se ha podido llegar en la actuación de esta campaña es que la primera construcción del macellum no se extendía hacia el oeste más allá de la crujía de cierre en esta zona, ya que no se ha documentado resto alguno en la superficie excavada que así lo pudiera sugerir. De hecho, se ha podido comprobar que el muro más antiguo de todas las estructuras documentadas este año era el que cerraba el primer edificio del macellum por el oeste y a él se le adosaban el resto de estructuras en este flanco, tal y como se había planteado gracias a las campañas anteriores.

Como es lógico, por esta misma circunstancia no pudimos constatar rellenos que se puedan incluir en esta primera fase, ya que en este momento todavía no habrían acondicionado completamente esta parte de la manzana y que, por lo tanto, debió de existir momentáneamente una importante diferencia de cota entre el interior del mercado, ya nivelado, y el exterior de la edificación, donde todavía se mantendría la topografía anterior a este proyecto constructivo del edificio. Se trataba, en cualquier caso, de un importante desnivel de más de un metro entre la zona más alta y más baja, tal y como se pudo apreciar en los rellenos

ongi asko antzematen baitira) ikusi eta egiaztago bezala metro betetik gorakoa punturik garaienetik baxuenera. Betegarri horiek zoru erabilgarriena egingo zuten eraikina fatxada horretaraino iristen zen biltartean, eta beraz, indusketa informazio kronologiko baliootsua eskain lezake eraikin hau altxatu zuten uneari dagokionez. Hala eta guztiz ere, azkenik ez genuen esku hartze honetan induskatu ez genuelako zoruean macellum-arekin fasean dagoen estratigrafiatik harago sakondu nahi izan eta, aurreko ekinaldiaren berreskuratutako aztarna materialek eskainitako datuei esker, aldez aurretik ezagutzen genuelako bere kronologia erlatiboa. Honenbestez, K.o. I. mendearren erdialdearen eta II. mendearren erdialdearen artean kokatuko dugu fase hau.

### **Bigarren fasea**

Macellum-a eraikitzeko lehenengo proiektuaren araberako hormari atxikitako horma egitura batzuk sartzen dira bigarren fase honetan, eta gure ustez, azokaren mendebaldeko fatxadaren ondoan altxatu zituzten lehenengo eraikinei dagozkie horma horiek. Landu gabeko harrizko hormek (harriak buztinez batuta) eratutako egitura sorta bat da, hormak gutxi gorabehera 0,45 m lodi. Horma horiek kare-harrizko berme batzuk zeuzkaten 2,30-2,40 m-ko tarte bakotzean, gure ustez ostikoak dira. Oso zaila da aurten aztertutako azaleran lehenengo hirigintzaren trazadura ulertzea, egitura horiek erabat eraldatuta gertatu baitira gerora egindako eraikuntza lanen ondorioz. Halaz ere, guk uste dugu gutxienez bi barruti egon zirela; haietako bat osorik kontserbatu da. 4,30 m x 3,20 m-ko neurriak ditu, eta bestetik zabalera baizik ez dugu ezagutzen (1,90 m), hegoaldeko muturra gerora eraikitako egiturek ebakitzentz bai.

Lehenengo fasearekin gertatu bezala, hormak eraikitzeko erretenak amortizatzen dituzten betegariez aparte ezin izan genuen obra horrekin lotutako betegarririk dokumentatu. Lehen ere adierazi dugun bezala, gerora etorriko ziren hurrengo berritze lanei ekitean eraikuntza berri horrek eragindako aldaketa handiek, ia ezerezan utzi baitzuten aurreko egoera, azaltzen dute absentzia hori. Hala eta guztiz ere, guk uste dugu obra horrek ere ez zuela arrasto handirik utzi lur eremuan, etxadiko goiko eremuko leku zehatz batean egokituta eremu hori ez baitzuten berdinduko. Izan ere, guk uste dugu lehenengo fasean baliatutako zoru erabilgarri berberak erabiltzen jarraitu zutela baita bigarren fase honetan ere.

Bistan denez, oso gutxi dira etxadian dokumentatutako bigarren eraikuntza fase honi buruz dauzkagun datuak. Beraz, berriz ere aintzatetsi behar dugu lehendik egindako kanpainetan bildutako informazioa. Horrenbestez ikusten dugu nola multzoaren planimetria orokorrean baden eraikuntza teknika bera eta lodiera bera partekatzen dituen horma egituraren bat, eta gainera antzeko erlazio estratigrafikoekin. Lehenengo macellum-aren inguruaren bideratutako berritze lan sorta batean kokatu behar da egitura hori, baina geroago, eragin handiagoko beste esku hartze batzuk gauzatu zirenean, deuseztatuta gertatu ziren egitura horiek. Ho-

existentes y perfectamente definidos al marcarse en ellos con nitidez las zanjas de cimentación de esta obra. Estos rellenos seguramente pudieron servir de niveles de uso mientras el edificio se limitaba hasta esta fachada y, por lo tanto, su excavación podría aportar una valiosa información cronológica sobre el momento en el que se edificó esta construcción. No obstante, finalmente no se llegaron a excavar en esta actuación por no querer rebajar el subsuelo más allá de la estratigrafía en fase con el macellum y por conocer de antemano su cronología relativa por los datos aportados por los restos materiales recuperados en anteriores campañas. De esta forma, esta fase se puede fechar en la segunda mitad del siglo I d.C. principios del siglo II d.C.

### **Segunda fase**

En realidad, en esta segunda fase se incluyen una serie de estructuras murarias que se adosan al muro original del primer proyecto constructivo del macellum y que, pensamos, corresponden a las primeras edificaciones levantadas junto a la fachada del edificio principal del área occidental del mismo. Se trata de una serie de estructuras formadas por muros de mampostería trabados con arcilla y que tenían una anchura de unos 0,45 m. Estos muros tenían apoyos de piedra caliza cada 2,30-2,40 m, que interpretamos como pies derechos. Resulta muy complicado comprender el trazado de este primer urbanismo en la superficie intervenida este año, ya que estas estructuras fueron muy alteradas por las fuertes reformas que se construyeron con posterioridad. Aun así creemos que hubo un mínimo de dos estancias, una de ellas conservada de forma completa, que nos ofrece unas dimensiones de 4,30 m x 3,20 m y otra, de la cual solo conocemos, su anchura de 1,90 m porque su extremo meridional está cortado por estructuras posteriores.

Al igual que ocurría con la primera fase, no se han podido documentar rellenos relacionados con esta obra, más allá de las amortizaciones de las zanjas constructivas de los muros. Esta ausencia pudiera explicarse por las ya mencionadas fuertes alteraciones sufridas por esta nueva operación constructiva a la hora de acometer las siguientes reformas y que prácticamente la anularon. No obstante, consideramos que esta obra tampoco dejó mucha huella en el terreno, porque al localizarse en una zona bastante concreta del área superior de la manzana no sería nivelada. De hecho, pensamos que muy posiblemente los mismos suelos de uso que se habían utilizado durante la primera fase se seguirían utilizando durante ésta.

Como se puede ver, son muy pocos los datos que tenemos sobre esta segunda fase constructiva documentada en la manzana. Por lo que, nuevamente, es necesario acudir a la información extrapolada de campañas anteriores. Así, vemos que en la planimetría general del conjunto existe alguna estructura muraria que comparte la misma técnica constructiva y el mismo grosor, y que, además, tiene unas relaciones estratigráficas similares. Esta estructura fue incluida dentro de una serie de reformas acaecidas en el entorno del primer macellum, y que fueron posteriormente anuladas cuando se fueron produciendo otras nuevas actuaciones y de ma-

nenbestez, sektore honetako sekuentzia historiko orokorrean lehendik finkatuta zegoenarekin lotu ditzakegu eraikin berri horiek, eta beraz, lehenengo macellum-aren lehen hirigintza integrazio batez hitz egin dezakegu bigarren fasean biziko zuen obra handia gertatu baino lehen.

### Hirugarren fasea

Itxuraz bat dator aurreko kanpainetan finkatutako macellum-aren bigarren fasearekin, eta inolaz ere da aurten aztertutako eremuan aztarna gehienak eskaini dituena.

Eraikuntza proiektu berri eta monumental honean, hasteko lur eremua egokitu behar izan zuten. Horretarako, proiektatutako eraikinaren morfología berrian baztertu beharreko egitura guztiak eraitsi zituzten, macellum-aren mendebaldeko lehenengo itxitura hormak baizik ez zuen zutik jarraitu. Ondoren iparraldeko hormarteko kotaren antzeko kota bat anolatu zuten, eta aldi berean mazelaren beheko alde osoa berdinduko zuten gure ustez eraikuntza berri honetan zehar aplikatu zuten estrategia ahalbidetzeko. Zentzuzkoa denez, une hartan zapaltzen zuten mailan hasi ziren eraikin berrien zimentarriak antolatzen, gutxi gorabehera aurreko faseetako kota beritsuau, eta hormak altxatu ahala berdindu egin zituzten gune beheratuenak goiko aldeko kota berean uzteko eta multzoari halako erregulartasuna eta basatura emateko.

Zoruaren maila berdintzeko betegarri horietatik asko aurten induskatu ditugu, eta aztarna material ugari bildu ditugu. Aztarna horiek K.o. I. mendearen bigarren erdialdean edo hurrengo mendeko lehenengo hamarraldietan datatzeko aukera eman digute, eta datazio hori bat dator sektoreko beste alde batzuetan bideratutako berritze lan berari begira egindako proposamenekin.

Obra honen helburua da lehenengo multzoa hegazkerantz handitzea. Agian eraikin sorta handi bat okupatu zuen, guk uste baitugu sektorearen mendebaldeko muturrean dagoen korridore bateraino, lehendik bideratutako esku hartze arkeologikoetan jada antzemandako korridoreraino, iritsiko zela.

### Laugarren fasea

Ez dakigu egokitzapen handi hori bideratzen ari zirenean ala pixka bat geroago, baina eraikuntza plan berari jarraiki sarbide estali bat eraiki zuten; sarbide horrek iparraldetik lotzen zuen hiria azokaren mendebaldeko hegazkerkin. Egitura handia da, berrerabilitako hareharrikos bost harlanduk eratuta. Haietatik hiruk, 1,50-1,60 m luze, igarotzeko atalasearena egin zuten inolako zalandzarik gabe, eta beste biek zutabeen oinarriarenak. Harlandu horiek egituraren lerrotik irteten ziren, eta txikiagoak ziren (0,80 x 0,60 m). Guztira, 6,50 luze zen egitura osoa atxikita zituen hormetatik abiaturik. Alde batetik, sacellum-aren mendebaldeko itxitura horma, hain zuzen ere azokako tenplu txikiko horma zegoen puntuau. Eta beste aldetik, sacellum-aren mendebaldean paraleloan egokitutako barruti baten ekialdeko izkina. Sarbidearen posizioa ere interesgarria

yor impacto. De esta forma, podemos vincular estas nuevas construcciones a la ya establecida con anterioridad en la secuencia histórica general de este sector, y que permite hablar de una primera integración urbanística del macellum original antes de que se produjera la gran obra de su segunda fase.

### Tercera fase

Parece coincidir con la segunda fase del macellum establecida en las campañas anteriores y es, sin duda, aquella que más testimonios ha dejado en el área intervenida este año.

La primera tarea que se debió realizar en este nuevo y monumental proyecto constructivo fue el acondicionamiento del terreno. Para ello, se anularon todas las estructuras que no interesaba mantener en la nueva morfología del edificio proyectada, solo quedando en pie el cierre oeste original del macellum. Lo siguiente fue crear una cota más o menos poco diferenciada a la de la crujía norte y, al mismo tiempo, es más que probable que se nivelara toda la parte baja de la ladera para facilitar una estrategia que creemos se siguió durante esta nueva construcción. Como es lógico, comenzaron con las cimentaciones de las nuevas estructuras desde el mismo nivel en el que se pisaba en ese momento, más o menos coincidente en cota con el de las fases anteriores, y se fueron nivelando las zonas más bajas a medida que se iban levantando los muros para dejarlas a la misma cota de las zonas altas, dando una regularidad al conjunto.

Muchas de estas nivelaciones han sido excavadas este año por lo que se han recogido abundantes restos materiales que han permitido fecharlos en la segunda mitad del siglo I d.C. o primeras décadas de la centuria siguiente, datación que coincide con las propuestas para esta misma reforma en otras partes del sector.

El objetivo de esta nueva obra es ampliar el primer conjunto hacia el sur, quizás ocupando una misma gran manzana que, creemos, podría llegar hasta un corredor situado en el límite oeste del sector y que ya fue intuido en anteriores actuaciones arqueológicas.

### Cuarta fase

No sabemos si al mismo tiempo que se produce este acondicionamiento o algo más tarde, pero, siguiendo un mismo plan edilicio, se levanta un acceso cubierto que desde el norte comunicaba a la ciudad con el ala occidental del mercado. Se trata de una estructura de gran entidad constituida por cinco sillares de arenisca reaprovechados. Tres de ellos sirvieron, sin duda, de umbrales de paso con una longitud de 1,50-1,60 m mientras que los otros dos servirían de apoyos para columnas. Estos sillares sobresalían de la línea de la estructura y tenían unas dimensiones más reducidas, 0,80 x 0,60 m. En total, la estructura completa tenía una longitud de 6,50 m desde los dos muros a los que se adosaba. Por un lado, al cierre oeste del sacellum, curiosamente situándose en el punto donde había una puerta del pequeño templo del mercado. Y por otro, el de la esquina este de una estancia que discurría de forma paralela al sacellum por el oeste. Otro as-



Kanpaina honetan arkeologikoki aztertutako eremu osoaren ikuspegia. Aurrean, sarrera monumental arkueduna, iparraldetik mendebaldeko multzoa ekialdekoarekin lotuko zuena.

da, iparraldetik sarbide hau sorrazten duten bi barrutien iparraldeko izkinen atzean metro batzuetara baitago. Guk uste dugu bide nagusiaren alboko sarrerak ez bezala, halakoek eraikinaren fatxada handiena lehenesten baitute multzoa eraikinetik kanpo ikusi ahal izateko, sarbide honek eraikinaren barruko aldeari eman nahi diola garrantzia.

Eraikin nagusiaren albo batean dagoen arren, gure ustez ez zen saltzaileentzako eta hornitzai-leentzako sarrera edo posticum-a, baizik eta sarrera garrantzitsua, vestibulum atariduna, oraindik aztertu ez dugun iparraldeko eremuaz azterten ari garen eraikin handiarekin lotzen zuena. Oraindik goiz da handitze horrek zehazki nola funtzionatzen zuen ulertzeko. Antza zuzenean igarotzen zen sarrera horretatik gune ireki batera, agian gune ataridunera eta zoladuraz estalira, eta horrek aukera ematen zuen albo batetik multzoaren hegoaldera edo behe aldera zeraman hormarte batera iristeko, eta beste albotik, mendebaldean zuen barne patiora iristeko. Eta gune berri horren erdian bi barruti: soto-upategia eta uraska. Bi barruti horiek lotura estua dute aztarnategi honetan oppidum barruan aztertutako hainbat azaleratan ikusi den bezala; hauek ere lotuta egongo ziren modu batean edo bestean. Uraskak ura biltzeko izango zuen prozesuak berak iradokitzan digu lotura hori, gertuen zeuzkan teilituetatik isuri zitekeen ura bildu behar baitzuen nahitaez. Ondoan beste eraikinik ez zegoenez, guk uste dugu ur hori upategiari leku egiten zion eraikinetik eta hormartearen alboetako eraikinetatik iritsiko zela uraskarra, eraikin horietako teilituek uraskaranzko isurialdea izango baitzuten.

Vista de toda el área intervenida arqueológicamente en esta campaña. En primer plano, el acceso monumental porticado que desde el norte conectaría el complejo occidental con el oriental.

pecto interesante de este acceso es su posición unos metros por detrás de las esquinas septentrionales de los dos recintos que crean este pasillo de entrada desde el norte, lo que nos sugiere que, a diferencia de la entrada desde la vía, en la cual se prioriza monumentalizar la fachada del edificio para ser vista desde fuera del complejo, se pretende prestigiar el interior.

A pesar de su ubicación en el lateral del edificio principal, creemos que no se trataba de una entrada de servicio o posticum, sino de un acceso de entidad, un vestibulum porticado que conectaba la zona norte, aún no intervenida, con el gran edificio en estudio. Todavía es pronto para poder comprender en detalle cómo funcionaba esta ampliación. Parece ser que directamente desde esta entrada se pasaba a un espacio abierto y, quizás porticado y pavimentado, que permitía acceder, por un lateral, a una crujía que llevaba hacia el sur o parte baja del complejo, y por otro, a un patio interior que llevaba hacia el oeste. Y en el centro de este nuevo espacio dos estancias: un sótano-bodega y una cisterna, recintos que en este yacimiento tienen una estrecha relación como se puede ver en varias de las superficies intervenidas en el interior del oppidum y que en este caso también pudieron estar, de alguna manera, conectados. Esta conexión solo la intuimos por el propio proceso de captación de agua que debió tener la cisterna, y que pasaba obligatoriamente por la recogida del agua que pudiera caer de los tejados más cercanos. Así, pensamos que a falta de otras construcciones cercanas pudo provenir tanto del edificio que albergaba la bodega como de los recintos que flanqueaban la crujía que tendrían cubiertas con caída hacia ella.

Baina, tamalez, ezer gutxi gehiago dakigu multzo handi honetako hegal berriaren inguruan, batez ere eraikin honetan gerora bideratu ziren berritze lanek atal handien eraispena ekarri zutelako eta azoka abandonatu osteko hidradurak garaiko zoruak desagerrarazi zituelako. Horrek guztiak zaitasun handiak planteatzen ditu uraskari eta upategiari leku egiten zieten eraikinen hormen egiturak interpretatzeko garaian.

Hala eta guztiz ere, esku hartze honetan karerezko zoru baten hondakinak dokumentatzeko zoria izan dugu aztertutako goiko eremuko puntu zehatz batzuetan, arestian adierazitako eraispen lanek ukitu ez zuten guneeitan. Zoru horren presentziak aukera eman zigun gutxienez eremuaren gainerakoan beste zoruek egon behar zuten kota ezagutzeko, gure us-tez antzeko altueran egongo baitziren multzoko hegal honetako zoru guztiak, gutxienez uraskaren egituraren hegoaldearekin mihiatzatzen zen horma bateraino; horma hori lehenengo eraikinaren mende-baldeko hormarekin elkartzen zen, eta guk uste dugu alde hori osoa berdintzeko eustormarena egindo zuela. Ondorio horretara iritsi gara ez dagoelako kota beheragoan legooken zoruaren arrastrik bat ere, ez dago arranpan antolatutako zoru baten zantzurik, eta ez dago eskaileren bitarte gainditu beharreko hainbat altuera izan zelako aztarnarik. Gainera, oso kontuan hartzen dugu uraskaren zorua egongo zen altuera, gutxi gorabehera bat baitator kontserbatu den zoruaren kotarekin.

### **Bosgarren fasea**

Fase honetan kokatzen dugu eraikineko hegal berri honetan sartzeko vestibulum/korridorean egindako zaharberritze lan bat; segur asko eraikin nagusiko upategiaren amortizazioan ere eragingo zuen.

Lan horietan aurreko karezko zorua eta aurreko estratigrafia altxatu eta atera zituzten gune honetako saneamendua hobetzeko: hodi txiki batzuk sartu zituzten hustubide modura ura sarreraren mendebaldeko atalasean irekitako erretenera bideratzeko. Aldi berean, betegarri lodi batetik bete zuten ebaki hori, eta betegarri horrek III. mendean eta hurrengo mendearen lehen urteetan datatu daitezkeen zabor ugari zituen. Gainera horma bat altxatu zuten iparraldetik sartzen zen argiari leku txikiago egiteko.

Eta une horretan bertan soto-upategia ondoko zabortegi batetik ekarritako betegarri batez amortizatu izana ez da ausaz gertatutako zerbait, gure us-tez berariaz amortizatu baitzuten ura mazelan behera eramateko asmoz. Betegarri horrek, aurrekoak bezalaxe, III. mendearen eta hurrengo mendearen lehen urteen artean datatutako hondakin material asko zeuzkan. Guk uste dugu obra horren ondorioa dela iparraldeko horma horren hondamen egoera.

### **Seigarren fasea**

Ekinaldi honetan identifikatutako azken fasea da. Eraikinaren behin betiko abandonatzearekin eta gero bertan bideratutako arpilatzeekin dago lotuta. Deigarria da abandonatze maila hauetan berreskututako materialak eta aurreko fasean dokumentatutakoak oso antzekoak izatea, eta hori oso kontuan

Y, lamentablemente, poco más sabemos sobre esta nueva ala del gran complejo, fundamentalmente debido a los fuertes arrasamientos acontecidos tanto por las reformas posteriores sucedidas en este edificio como por distintas acciones erosivas tras el abandono del mismo, que han provocado la práctica ausencia de suelos en fase con las consecuentes complicaciones a la hora de interpretar cómo funcionaron los alzados de los edificios en los que se situaban la cisterna y la bodega.

No obstante, en esta actuación hemos tenido la suerte de documentar los restos de un suelo de argamasa en algunos puntos concretos de la zona alta del área intervenida que no llegaron a ser afectados por los citados arrasamientos. Su presencia nos han permitido, al menos, conocer la cota a la que debían encontrarse en el resto del área, pues pensamos que todos los suelos de esta ala del complejo debían estar a una altura similar, por lo menos, hasta llegar a un muro que se imbricaba con la estructura de la cisterna en su parte sur y que se acoplaba al cierre oeste del primer edificio y que lo interpretamos como un muro de contención para aterrizar toda la zona. Hemos llegado a esta conclusión por la falta de testimonios de suelos a una cota más baja que nos pudiera indicar que el suelo fuera en rampa o que hubiese varias alturas salvadas por escaleras. Además, también tenemos en cuenta la altura a la que debía estar el suelo de la cisterna, que, más o menos, cuadra con la cota a la que aparece el suelo conservado.

### **Quinta fase**

Se incluye en esta fase una reforma efectuada en el pasillo/vestibulum de entrada a esta nueva ala de la edificación que puede influir en la amortización de la bodega del edificio central.

La reforma consiste en el vaciado tanto del suelo de cal anterior como de la estratigrafía precedente, para mejorar el saneamiento de este espacio con la inclusión de caños a modo de pequeños desagües que dirigían el agua a una canaleta abierta en el umbral occidental de la entrada. Al mismo tiempo, rellenan todo este corte con un potente relleno con abundantes aportes de basura que parece fecharse en el siglo III o incluso los primeros momentos del siguiente y levantan un muro para reducir la luz de la entrada desde el norte.

Y consideramos que no parece ser un hecho casual, sino fruto de pretender llevar el agua ladera abajo, el que en este mismo momento se amortice el sótano-bodega con un relleno traído de un vertadero cercano y, al igual que el anterior, con gran cantidad de restos materiales datados entre el siglo III y principios de la centuria siguiente. De hecho, creemos que el estado ruinoso que presentaba su pared norte pudiera ser consecuencia de esta obra.

### **Sexta fase**

Se trata de la última fase identificada durante esta campaña y se corresponde con el abandono definitivo y los posteriores saqueos efectuados en el edificio. Llama la atención que los materiales recuperados en estos niveles de abandono no difieren en gran medida de los documentados en la fase an-

hartu beharreko datua da, nahiz eta berez ez duen behin betiko ondorio kronologikoak ateratzeko biderik eskaintzen.

### **Zaharberritze lanen gaineko kontrol arkeologikoa**

2010 eta 2014 bitartean induskatu zuten mace illum-a. Eraikin handia zen, gutxi gorabehera 1.200 m<sup>2</sup>-koa oinplanoan. Sarrera, galtzadaren ezker alboko espaloi arkupedunaren bidez, iter XXXIV biderari begira zuen.

2015. urteaz gerotzik dago abian berau sendotzeko eta zaharberritzeko proiektua. Aurten mace illum-aren mendebaldeko barrutietan (R-3, R-4, R-5, R-6 eta R-7) eta patioaren hegoaldeko korridorean eta geletan (R-14 eta R-15) bideratu dira lan horiek. Hauek izan dira kontrol arkeologikopean egindako lanak:

- Atera egin genuen macellum-eko gelak babes-teko egungo betegarria.
- Goratu egin genituen macellum-eko 2. faseko hormak jatorrizko materialaren antzeko materiala erabiliz. Beira zuntzezko sare batez babetu genuen lan hori hormen irakurketa ego-kia bermatzeko eta haren balizko itzulgarritasuna bermatzeko.
- Macellum-eko 1. faseko hormetako gailurrak: garbiketa, konponketak eta, kareorea baliatuta, harriak berriro batu genituen, dagoenaren antzeko material berria erabiliz sakrifizio-errenkada modura.
- Geletara sartzeko atalaseak goratu genituen, eta aurreko prozesuetan bezala material berria erabili genuen, hori bai, aurrez zegoen materialaren antzekoa oso.
- Egitura babesteko lur eta landare sarea kendu, barrutiak garbitu eta beste lur eta landare sare berri bat ipini genuen.
- Barrutiak eta korridorea legarrekin bete genituen macellum-aren 1. faseko hormak babes-teko eta zirkulatzeko zorua sorrarazteko. Zirkulatzeko mailatik behera gutxi gorabehera 10 cm gorde dira haren gainean kolore laranjako errekarriez eraturiko azken geruza bat egokitzeko. Bestalde, hegoaldeko geletan (R-14 eta R-15), errekarri legarrezko geruzaren lekuaren landare geruza bat zabaldu genuen.

### **Beste esku hartze batzuk**

Aurten ere indusketa eremurako sarbidea egokitzeko lanak egin dira. Zehazki, legarrezko bide bat itxuratzen da indusketa eremuaren paraleloan, azalpen paneletako batean du amaiera. Kontrol arkeologikopean gutxi gorabehera 15 cm-ko sakonera maila eta 1,5 m-ko zabalera zituen erreten txiki bat ireki zuten makineriaren laguntzarekin; ondoren lur eta landare sarea jarri zuten eta lehendik macellum-ean erabili-tako legarrekin bete zuten dena. Era berean, kontrol arkeologikopean bideratu ziren aztarnategiaren mendebaldetik Berastegiko sektorera iristen zen hesi zaharra kentzeko lanak.

terior, lo cual es un dato a tener en cuenta, aunque por sí solo no permita establecer conclusiones cronológicas definitivas.

### **Control arqueológico de las obras de restauración**

Entre 2010 y 2014 se realizó la excavación del macellum, un gran edificio, de unos 1200 m<sup>2</sup> de planta, que presenta un acceso directo a la denominada iter XXXIV a través de una acera porticada que flanqueaba la calzada en su fachada este.

El proyecto de consolidación y restauración, que se lleva a cabo desde 2015, este año recogía la intervención en las habitaciones del lado oeste del macellum (R-3, R-4, R-5, R-6 y R-7) y las habitaciones y pasillo localizados al sur del patio (R-14 y R-15). Los trabajos realizados con control arqueológico son los siguientes:

- Vaciado del relleno actual de protección de las estancias del macellum.
- Recrecimiento de los muros de la 2<sup>a</sup> fase del macellum con material similar al original, que se ha acompañado, como todos los recrecidos con una malla de fibra de vidrio, garantizando una adecuada lectura de los muros y su posible reversibilidad.
- Coronaciones de los muros de la 1<sup>o</sup> fase del macellum: limpieza, refacción y rejuntado posterior con mortero de cal, con aporte de nuevo material similar al existente a modo de hilera de sacrificio.
- Recrecimiento de los umbrales de acceso a las estancias, como en los anteriores años con material nuevo y similar al existente.
- Retirada del geotextil de protección, limpieza de estancias y colocación de una nueva malla de geotextil.
- Llenado de las estancias con aporte de gravas, para la protección de los muros de la 1<sup>o</sup> fase del macellum y crear el suelo de circulación. Se han reservado unos 10 cm por debajo de la cota de circulación para una última capa de gravas de canto de río de color anaranjado. Por su parte en las estancias del sur (R-14 y R-15) se sustituye la capa de gravas de canto de río por una capa vegetal.

### **Otras intervenciones**

Este año también se han ejecutado trabajos de acondicionamiento del acceso a la excavación. Concretamente se ha realizado un camino de gravas paralelo a la excavación que termina en uno de los paneles explicativos. Los trabajos, con supervisión arqueológica, consistieron en la ejecución de una pequeña zanja de unos 15 cm de profundidad y de 1,5 m de anchura realizada con maquinaria, la colocación del respectivo geotextil y el relleno con las mismas gravas utilizadas anteriormente en el macellum. Otro trabajo que requirió control arqueológico fue la retirada de la vieja valla del yacimiento en su lado oeste hasta el sector de Verastegui.